

7. ARTIKULU BEHARREZKOA:

“ MAILEGAKETA ETA BERRERAIKETA EUSKARAREN HISTORIAURREAREN IKERKETAN ”

Maileguen azterketari esker, euskal LEXIKOAREN zati handi baten ETIMOLOGIA BERREZKURATU da. AE-n eta euskararen historiaurrearen berreraiketa funtzean maileguen azterketan oinarritzen da.

Hizkuntza hartzailea maileguen bitartez ikertzeko zenbait saio egin dira hainbat hizkuntzatan, esaterako:

Hegoaldeko eslabiera eta latin arrunta: Aitzin eslabiertatik, dialekto eslabiarretako lehen testuetara aldaketa handiak; bokalen sistema aldatu, diptongoak monoptongatu... Barneko lekukotasunen bidez, aldaketa batzuk beste batzuk baino lehenagokoak edo geroagokoak ziren ondorioztatu. Baina beste kasu askotan ezinezkoa. Horretarako, eslabierazko emaitzak latineko etimoekin alderatu ziren. Eslabiarrak balkanetan kokatu aurretik bertan latin arrunta egiten zen. Beste adibide bat **irländera eta latin britonikoa** litzake.

1) MAILEGUAK EZAGUTZEKO BIDEAK:

Edozer edo ia edozer mailegatu daiteke denbora eta kontakto egoera batean izanda. Hala ere, mailegatutako hitzetan hierarkizazioa dago: izenak aditzak baino errazago...

Maileguak:

a) Realian oinarrituak: lehoi, zebra, iglu, te (historikoki horrelako animalia, produktuak... ez dira EH aurkitzen. Kanpotik ekarri behar izan zituzten

b) Euskaratik bereizten diren ezaugarriak dituztenak: Fonologikoak, morfologikoak. Ñu, tse-tse, blok...

Jatorrizko hitzak: Ezagutzen dence> (hizkuntzaren) historian ezagutu direnak. Eboluzioa jasan dutenak; garaiko aldaketei moldatuz joan direnak. Hizkuntzaren aldaketa guztien lekukotasun eman dezakete kasurik hoberenean.

Maileguak garai ezberdinetan saru dira. Hauek beraz, hizkuntzaren eboluzioaren berri emateko bakarrik balio dute. Hasierako egoeraren berri ez. Aldaketa batzuk, mailegua eskarara sartu baino lehenago suertatu dira. Adb: lat *ceresia* > E *gerezia*. Mailegu hau erromantzeko *ke* > *tze* > *ce/ øe* gertatu baino lehenago.

Mailegua zaharra izango da:

a) Bere jatorrizko itxura ondo gorde badu: Euskarara iritzi aurretik, ondoko erromantzeen aldaketak ez baditu jasan.

b) Bere jatorrizko itxuratik asko urruntzen bada: Euskararen barnean emandako bilkasideengatik. Latin garaian sartutako maileguak, euskal lexikoaren partaide bihurtu zirenez, euskal lexiko osoak ordutik aurrera jasan dituen aldaketak jasan dituzte. (*gerezia*).

Zenbat eta egokituago egon, zailagoa da mailagua ote den jakitea.

Batzutan, hitz batentzat bi azalpen egon daitezke: mailegua edota euskararen barnekoa. Adb: *Begiratu* > *begi* + *ra* + *tu* (*traido/ llevado al ojo*) edo *vigilare*-tik.

2) LATINEZKO MAILEGUEN LEKUKOTASUNA EUSKARA ZAHARRAREN FONOLOGIAZ:

Sistema baten beharra aldarrikatu zuen (ikuspegi estrukturalista). AH-ren konparaziotik sortutako

sistema. Horretarako latinezko maileguak aztertzen ditu hauek baidira ugarienak eta beraz oinarri seguruenak. Bilakabide erregularrei erreparatuta, **Uhlenbeck**-ek bokalarteko kontsonantearekiko disimilazioaz, hitz hasierako kontsonantea ahostundu. Adb **pacem/ bake; picen/ bike**. Baina hau, V_V konstonaterik ez duten hitzetan ere aurki zitekeen. Adb: Gerezi, gela, bilo.

Gavelek: Herskariak hitz hasieran erregularri ahostuntzen zirela esan zuen. Oso hitz gutxi herskari ahoskabeez hasten zirelako eta hauek; mailegu, fonosinbolismo, erorketen ondorio... ziren.

Martinetek: Maileguak aztertu eta erromantzeen eraginez Euskararen K sistema aldatu zela esan zuen; Herskariak:

Hitz hasieran: Erregularri ahostundu. Lat mailegua +/- bazen ere, euskaraz ahostuna (ahula). Alofono hau, zegokion ahoskabe bortitza baino hurbilago baitzegoen.

Hitz bukaeran: Ahoskabe.

v_v: Bakoitzak bere kidea. Bortitzek ahoskabea eta ahulek ahostuna.

Maileguak aztertzearen ondorioz konturatu zen bilakabideak azaltzeko ahostuntasunak ez zuela balio. **Oposaketan oinarritutako sistema** bat beharko zen (**lenis/ fortis**) eta **bi herskari sail (bortitzak eta ahulak)**.

	Kokagn bort	kokagn ahula (v_v)
BORTITZA	Th (hasperena)	t
AHULA	t(ahoskabe goxo)	ð

Ondorioz:

- 1) AE-ren HERSKARI BORTITZEN SAILA: LATINEZKO HITZIK GABE geratu.
- 2) Bortitzen hasperena areagotu: th >h >ø
- 3) Ahulen saila, ahostun bihurtu.

Mitxelenak, “ *Las antiguas consonantes vascas* ” en barne berreraiketa aurkezten du. Berreraikitzerako orduan OZTOPOAK daudela dio; hizkeren banaketa, inguruko hizkuntzen eraginak, material zahar eta berria gradu ezberdinetan hedatua, aldatua, bertakotua izana... “ FHV” honen garapen landua da.

Bi ekarpen garrantzitsu:

- 1) Martineten lenis vs fortis (ez +/- hots) sistema 3 oharren bidez argudiatu zueen.
 - a) [f] lehen /b/ ren aldaera zela: Nabar/ nafar. Orain ordea /p/-rena: alfer/ alper.
 - b) Geminatuan bilakabidea: erromantzezko eta latinezko gem euskaraz BORTIZ: abbas apaiz.
 - c) Akitanierazko <tt> eta <cc> indartsuak.
- 2) Martineten bortiz/ ahul sistema konst sistema osora zabaldu zuen (h salbu). Konstsonante sisteman murriztapenak daude;
 - a) /p/ hotsak ez zuen izaera fonologikorik. /b/ren alofono.
 - b) Sabaikariak: sekundarioak. (Adierazgarriak/ fonosinbolismoak).
 - c) /m/: ez zuen izaera fonologikorik. /b/ ren alofono.

Bokalak: Akitanieratik hona ez dira asko aldatu.

Txistukariak: Neutralizazio gune berberak dituzte:

- a) hitz hasiera(frikaria) eta bukaera(afrikatua).
- b) ozen ondoren

c) Kontsonante ondoren.

Dardarkariak: Ahul/ indartsu oposaketa badirau, baina hitz bukaeran neutraltzeko joera guztiz burutu gabe dago: Plater/ ur. Aeko sistema karratuko hondarretako bat, erronbo sistemara igaro aurretik. Hitz hasieran ez dago; PROTESIA ipini.

Albokari eta sudurkariak: /l/ eta /n/ V_V an:

- | | |
|-------------------------------------|--|
| 1) l ahula > r sali > sali | 1) n ahula > h > o onore > ohore/ arena > area |
| 2) l bortitza (ll) > l aLaba *araba | 2) n bortitza (nn) > narraNo |

3) Gainerako mailagaketak:

Mitxelenak EBZ V-VI. Mendeetan kokatu. Mailegaketa latino- erromanikoei esker inf asko eskuratu da.

Germanikoeak ordea, ez dute “itxura onik”; *ehun; edo; gudu*. Germanikoaren barruan, euskararekin INOIZ kontuaktuan izan diren hizkuntzei dagozkie. Gainera, askotan euskararen barruan aurki daitezke azalpenak.

Arabiarrak, *atorra/ gutun* besteren bat zuzeneak sartuak. Gainerakoak, *azenarioa...* erromantze zahar edo dialektaletik datoz. Ondorioz, erromantzetik datoz, ez arabiarretik.

Zelta—ri dagokionez, historikoki “Euskal Herri” moduan hartzen dugunean Zeltak bizi izan ziren. Aukera asko daude bi hizkuntza hauek iraganean kontaktuan izan zirela esateko. Honek galdera bat sortu: Latinarekin egindako berdina egin ote zuen euskarak zelta bezalako gainerako hizkuntzekin? Schuchardt da euskararen eta gainerako IE hizkuntzen arteko antzekotasunak erakusten sahiatu dena. Mitx eta Gorrotxategik gauzak horren garbiak ez direla esan.

Euskal hitz bat H IE batetik etortzeko ondorengo baldintzak bete behar ditu:

- ⑩ Deribazio ona izan behar du fonetikoki eta semantikoki.
- ⑩ Bere letasuna segurua izan behar du.
- ⑩ Alderaketa egin behar da euskal hitzen eta IE hitzen artean (ez erroen... artean).
- ⑩ Arrazoiak egon behar dira euskararekiko gertu egon den IE H batekoa dela onartzeko.
- ⑩ Frogatu behar da horren transmisio Latinaren edo Erromantzearen bidez ezinezkoa dela.

Galo- euskara eta euskara- zeltiberio kontaktuari dagokionez, ezer gutxi dakigu. Aintzinako iturriek garai horretako denbora oso labur baten lekukotasuna ematen dute. Erromantzearekin bi hizkuntza hauek desagertu egin ziren. H hauen aintzinako *corpusa* oso eskasa da. Hondar hizkuntzak dira eta bertatik ezin da sistemarik ondorioztatu. Irtenbide bezala, alderaketa hizkuntza neozeltikoetara igaro (irlandera, galera, bretoiera eta korniera). Errazagoa izango da bertako hitzat mailegutzat hartzea, H-en barnean zabalduenak izango baitira. Tovarrek *eusk hogeit horet ugent* eta *gal ugeint* parekatu zituen. Baina ez zuen kontutan hartu zeltak literatur aurreko garaian hizkuntzan aldaketa ugari jasan zituztela. Alderaketa ondorioz gaizki eginga dago. 20ko zenbaketa baliteke, baina hitza behintzat ez da zelden eraginez sortua. Zenbait kasutan, zeltaren mailegutzat hartutako hitzak latinetik hurbil kokatzen dira eta zaila izaten da bietako zeini dagokion esatea; *zarika* (*zuhaitza*) *zelt* *salik eta *lat* * salice(m).

Iberikoa; euskarazko ia oinarrizko zenbaki guztiak iberieratik mailegatu direla uste izan da.

Iberiera	Euskara
ban	bat
bi(n)	bi
irur	(h)iru(r)
bors(te)	bortz/bost
ei	sei

okei

(h)ogei

Baina hauetako askok, euskarazko etimologia izan dezakete/ daukate; bost, *bortz-zaz-bi*, zatika daiteke; x-rekin y/ hirur, * *her-bur/* laur * *la-bur/* hogei, **bor-gen-i*.

Gainera, *ei* diptongoa (*hoge-i, sei*) modernoa da euskeraz; ai >ei eta mailegu berri baten ondorio dira: deitu, esleitu... Ondorioz, **seCi*, *-*geCi* berreraiki behar.

Humbolt-ek euskarazko *uri/iri* hitzaren jatorria iberieran kokatu zuen (ILLI). Baina arazoa euskarazko -r- < l-tik datorrela da ez ll tik. Bestela **uli/* **ili* litzakete. Hauek **her* erroa (hirur-en berdina) + *-i*, partizipioaren bidez azal daitezke.

5) Erro eta mailegaketa: Lakarrak, aitzin euskara zaharraren berreraiketarako erro monosilabikoaren teoria proposatu xuen; CVC. Egitura kanoniko horretatik kanpo geratzen diren egiturak azaltzeko bi bide:

a) sinkronikoki fosilduak izan arren aitzinhizkuntzaren garai zaharrago baten eratorri konposatuak dira.

b)maileguak, oraindik hizkuntza hartzailearen egituretara erabat egokitu ez direnak.

** CV/ ** VC: partikula gramatikaletan aurkitzen dugu: al, ni... Hauek normalean erroen egitura ezberdina izateko joera dute munduko Hetan.

**TVTV erro bisilaboetan: Mailegu, fonosinbolismo, konposatu eratorri...: bake, katu, dago, begi... Egitura hau ez da anekdota hutsa; euskaraz herkeriak eta bokalak dira hotsik ugariak eta bestalde, silaba irekia da naturalena, unibertsalena.

Lakarraren CVC erro egiturak zenbait ondorio ekarri zituen; (C)VC-CVC eta CV-CVC egiturak:

a) Erro monosilabiko berriak agertu ziren lehengo polisilabo edo bisilaboetatik: **bel(sa-bel)/* **gar(ni-gar)/* **bil* **dur(bil-dur* erro+ erro).

b) Morfema berriak: *hor-tz/ bel-tz*. Hauek eratorri edo mailegu izan behar dute.

c)Mailegu berriak: “pertz” p: mailegua izan behar du.

d) Gramatika zaharragoaren aztarnak: Erreduplikazioak eta aurizki berriak (*-la; -gi; -sa*): *Go-gor/ da-dar/ sa-bel*.

ODORIOZ: Erro bisilaboak, monosilaboak baino askoz berriagoak dira. Mailegu asko eta etimologia ezezaguneko adibide gutxi dituztelako.

Lakarrak esandako guztia taula baten bidez irudikatzen du, bertan erro eredu bakoitzean aurkitutako hitzak bost talde ezberdinetan sailkatzen ditu:

1) Mailegu ezezagunak.

2) Aldaerak.

3) Eratorri-konposatu.

4) Fonosinbolismoak.

5) Etimologia ezezagunekoak. Hauek taldez alda daitezke. Denboran zehar, kopurua murriztuz joan da. Eredu bisilaboak esaterako bertatik 4/3/1 taldeetara igaro dira. Horretarako, iragazki fonologikoa eta geografikoa gaintu beharko dute. Etimologiarik gabeko erroak dira Sekoak izan daitezkeen bakarrak.

Taulan, maileguetan ehunekorik altueneko erroak ez dira jatorri zaharrekoak izango . Gainera,

hondarren ehuneko oso baxua daukete (0-1). Beraz, AE-koak izatea ezinezkoa da. Erro eredu bisilabikoetan, asko, batez ere bokalez bukatzen direnak, berankorrak dira eta seguruenik mailegaketaren bidez sartu dira.

Maileguak zenbat eta gehiago bertakotu, orduan eta zailagoa da semantikoki eta formalki antzematea. Forma kanonikoa aldatuz doa eta horrek hasiera batean hizkuntza hartzailean ezinezkoak ziren egiturak posible bihurtzen ditu. Euskaraz, CVC egitura kanonikotik; CVCCVC (konposatuak) CV-CVC eta CVCVC (erreduplikazioak) dira lehenik espero diren formak. VCV/ VCCV/ CVC+ atzizkia formak ordea, ez dira espero.

Hemendik aurrerakoa 7. gaiko powerpointari dagokio (ikasteko material “beharrezkoa”).

6) IKERKETA GEHIAGO MAILEGAKETA ETA EUSKARAREN HISTORIAURREAZ:

H-aren edozein alderditan (fon, morfo...) garai ezberdinetan sortutako bertakotutako ezaugarriak aurki daitezke. Forma berdinekoak ere badira; funtzio, balio eta testuinguru ezberdinekin.

⑩ AITZIN EUSKARA ZAHARREAN:

Erreduplikazioa eta aurrezkitzea bazen. Neutralizazio ondoko txistukariak (gaZi vs gaTZ) eta dardarkariak (uR vs ur) ere geruza zaharrekoak dira.

⑩ AKITANIERA OSTEAN, ES BAINO LEHEN:

Hitz eraketaren ondorioz izaten diren hots aldaketak modernoak dira.

⑩ BERANDUAGOKOAK:

Atzizkitzea.

Erroetan ere geruzak daude:

Erro monosilabikoak

Erro bisilaboak; erreduplikazioa

Erro bisilaboak; aurrizkitzea

Erro bisilaboak; CVC+CVC

Erro bisilaboak: Atzizkitzea/ TVTV/ CVCV

Honelako fenomenoak mundu osoko hizkuntzetan ematen dira. Adb: Hausak arabieratik hartutako maileguak bitan banatzen dira. Horretarako arabierazko jatorrizko hitzek jasan duten aldaketari begiratu.

Arabiera herrikoietik hartuak	Arabiera klasikotik hartuak
<p>⑩ Aldaketa fonetiko ugari</p> <p>⑩ Zaharragoak</p> <p>⑩ Eguneroko bizitzarekin zerikusi (merkatalgoa, erlijio mahometarra...)</p>	<p>⑩ Arabierako hotsen bilakabide erregularragoak izan dituzte.</p> <p>⑩ Berriagoak</p> <p>⑩ Arabierazko pertsona izenak (koranekoak⁹ eta erlijio zein zientziari dagozkien hitz “konplexuak”</p>

Mitxelena eta Martinetek berreraiketa lanerako maileguak aztertzerakoan; nahasketa zegoela esan zuten. Familia bereko baina geruza ezberdinetako formak aurki daitezke.

Mehatxu (L,B,BN,S) Baeza (Lcc), Zemai (V-Ger-PLE-arr-oro) [1350-1450] Ezin dira beraien hartean hizkera berean konbinatu.

Amenazu (BBiz, Astar...)eta Amenazatu (OA, Astar...) XVIII Beranduagoko *amenaza*-tik hartuak. Goiko edozeinekin konbina daitezke hizkera berean.

Berdina gertatzen da *Leiho*; *lexo* vs *bentana*-rekin. Bentanaren kasuan, *n* ostean herkarien ahostuntzea gertatua izan balitz ****bendana** izango genukeen.

7) MAILEGU ZAHAR ETA BERRIAK:

ZAHARRAK	BERRIAK
Bokalismo sardoa : tinbrea mantendu. Pice> Bikhe ; incude > ingude	Tinbrea aldatu: ballista> balezta; torre/dorre> turre (zaharragoa)
U ficu >biku (higo)	O joku/joko; aventu /abendu/o.
Muta cum liquidarik ez. ecclesia>eleiza; granu> garau	Kontsonante taldeak mantendu grazia
Ahostuna hitz hasieran. Bara/pala	Ahoskabea hitz haasieran piper.
Belarea e eta i aurrean . Bikhe/ bake; gela	Sabaikariak (erromantzetik) caelu/ zeru /cielo.
Lat S>Z gorputz/baradizu	Lat S>S paraisu/o ; seinale
Herskari ahoskabea V-V zaphore	Herkari ahostuna V-V adu/idu (erromantzez sortuak)
Lat l>r; n>h>o anate> ahate; onore>ohore; koroa	Lat n>n; l>l ventana; pala; bala

Gutier: Euskal hots aldaketaren kronologia absolutua egitea proposatu zuen, horretarako maileguetan oinarrituz. Lehenbizi, latinetik erromantzera igarotzean izandakoak aztertu zituen eta gero beste egokitutakoak. Izan ere, batzuk beste batzuk baino lehenago gertatuko ziren. Ondorengo kronologia hau proposatu zuen:

200	250		300		400		1000	
p->b-			h>Ø			l>r		ll>l
t->d-	mb>m	mp>mb	nd>n	nt>nd				nn>n
k->g-								

l>r aldaketaren kronologian erratu egin zen. 250 urteari dagokio.

Latinezko herskari ahoskabeen ahostuntzea, (ripa>riba) geminatuen soiltzea baino lehen eman zen (cappa>capa). Bestela, **** caba** ere izango genuke.

Euskararen kasuan, -l->-r- (sali> sari) aldaketa -L->-l- (aLaba>alaba) aldaketa baino lehenago eman zen. Bestela, ****araba** izango genukeen.

Lat caepulla> tipula: Belarea (k), txistukari bilakatzeko bi hurrats izan ziren

1) /kj/ 200 urte inguruan

2) /tj/ 250 urte inguruan. Azken hots hau ez zen emankorregia izan, 271.urterako Dacian(Errumaniera) iada txistukaria zegoen.

Euskaraz ordea; 250-270 inguruan kokatzen da, orduan hartu baitzen *tipula* hitza.

ⓐ Bokal tinbrea mantentzen du, ez da u>o aldaketarik eman, beraz 300 baino lehenagokoa.

ⓑ Herskari ahoskabea gorde da. p>b aldaketa 400 urtean.

⑩ Herskaria ez da ahostundu: ****dipula**, beraz, 250 baino lehen.

Nt>nd: 400 baino lehen *voluntate>borondate*; baino 300 eta gero (u>o bokal aldaketa).

mb> m: 259 baino lehen *imbutu> imutu* baina 300 baino lehen (u>o aldaketa ez).

-l->-r-: 250 ostean *gula>gura; caelu>zeru*, baina 300 aurretik.

Kronologia erlatiboan, *h*-ak ere bdu zeresana; ***-n-> -h-** (*anate>ahate*) ***h(3)> h(1)** baino lehenago.

Soilik orden hori jarraituta izan daiteke *harea* euskaraz.

Grassman legea ere, batez ere ondare zaharreko hitzetan aurkitzen da. Gainera, ***h(3)>h (1)** legeareekin edo besterekin konbina daiteke: *huh-bahi> hur-ban-i> hibai> ibai*.

8)H- ETIMOLOGIKOAK:

Lekukotasun gaskoiak erakusten digu, /h/ etimologikoak ez direla soilik Mitxelenak FHV-en emandako lauak:

- 1) AE-ko leherkari bortitzetatik datozenak.
- 2) [f] latindar edo erromanikotik datozenak.
- 3) ***-n->-h-**
- 4) ***h->h**
- 5) ***-r>h**.

Hauez gain, beste batzuk:

6) Gask. *h>eusk h*

7) *** hVR> *Vrh** (gask horeheyt> orhoitu) Erregela berantiarra da